

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gurseko kontzentrazio-esparruan egondako 500 nafar baino gehiagoren omenaldiaren bideoa argitaratu da

Ekitaldia eta ikus-entzunezko dokumentua Nafarroako Gobernuarengatik egin da, eta memorialisten elkarteek laguntza izan du

Asteartea, 2017.eko urriak 10

Gaur aurkeztu dute Nafarroako Gobernuak joan den irailaren 30ean 1939. eta 1945. urteen artean Gurseko kontzentrazio esparruan, Oloroeko Andre Mariako herritik hurbil, barneratuta egon ziren 500 nafar baino gehiagorik egin zien omenaldiaren [bideoa](#).

Ekitaldian 400 senide inguruk parte hartu zuten Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko Lehendakariarekin, Ainhoa Aznarez Parlamentuko lehendakariarekin eta Pablo Azcona Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehendakariarekin batera. Bestalde, zenbait agintarik eta Frantziako herrira Gobernuaren eta memorialisten elkarteek deialdiari erantzuteko etorri diren pertsona ugari ere parte hartu dute.



Krabelin sorta Gurseko kontzentrazio-esparruko monolitoan.

Gurseko esparrua 1939. urtean eraiki zen errefuxiatuen esparru gisa, frankismoaren errepresiotik ihes egiten zuten lau pertsona-talde hartzeko. Talde horietatik jende gehien zuenetako bat euskaldunena eta nafarrena zen, Argelesetik Gursera eraman zituztenak. Bigarrena, zenbait herrialdeetatik etorritako Nazioarteko Brigadetako kideez osatuta zegoen, egoera politikoa eta ekonomikoa zela-eta beraien jatorrizko tokietara ezin zirenak itzuli. Hirugarrena,

hegazkinlariena gisa ezaguna zena, armada errepublikanoko teknikariz osatuta zegoen. Azkenik, laugarrena, Estatuko zenbait lekutatik etorritako



Ikusi bideoa QR kodearen bidez.

pertsonaz osatuta zegoen. Guztira, 18.000 pertsona baino gehiago egon ziren Gursen.

Ikerketa-lanei esker, gutxienez 435 pertsonaren jatorri nafarra berretsi ahal izan da. Horiei guztiei eta beraien senideei egin zitzaizkien omenaldia joan den asteburuan eta gaur aurkeztu da.